

COMPET' Plus mugaz gaindiko proiektuak bere bideari ekin dio

COMPET'Plus Akitania-Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren arteko mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak irudi bisual berriarekin ekin dio bideari, eta hiru lurraldeek sarean lan egitearen garrantzia indartu du.



Lehenengo ekintzetako bat hiru lurraldeetako erabakitzaile publikoak ordezkatzan dituen Batzorde Estrategiko bat egitea izan da. Batzorde horrek proiektuaren lehen ekintzak zehazteko balio izan du. Proiektuaren helburua ETEen enpresa-lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea da, I + G + b arloan inplikaturako hiru lurraldeen (Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroa) mugaz gaindiko lankidetzaren bidez

Irailaren 8an Ficoban (Irun-en) ospatu zen Batzordearen bilkuran zehar lehentasunezko lau erabileremuak eguneratu eta berrikusi ziren, RIS3tik hartuak (energia, mugikortasuna, nekazaritzako elikagaiak eta sormen-industriak) eta mugaz haraindiko eremuaren lehiakortasunerako eskualde apustuak aztertu eta argitaratu dira, edonork irakurtzeko moduan daudelarik. Zehazki, COMPET'plus proiektuaren esparruan garatuko diren lau proiektuak definitu ziren: Energia hibridazioa - Elektro-mugikortasuna elektrikoan eta hidrogenoan - Elikadura osasuntsua et KSI: Industria-erabilerarako animazio birtualeko lankidetzaleroak.

Hurrengo ekintzak

Proiektuak hautatu ondoren, enpresen, zentro teknologikoen, klusterren eta profesionalen taldeen identifikazioa lantzen ari da, eta elkarrizketak egiten ari dira enpresa-traktoreekin eta euren sektorean liderrak diren enprekin. Era berean, lantegiak antolatuko dira berrikuntzaren esparruko eragileekin lantaldeak osatzeko.

Trukea eraginkorra izan dadin, mugaz haraindiko fluxu ekonomiko garrantzitsuenak eta jarduera defizitarioak (alor geografikoetatik kanpo daudenak) aztertuko dira, eta hautatutako eremuetan balio-kateak diseinatuko dira.

Azken emaitza zera da, bi berrikuntza-plataforma sortzea, trazio-enpresen (talde handien edo enpresa liderren) eta enpresa hornitzaileen (ETEn eta tokiko enpresen) elkarlana sustatuko dutenak, baterako eskaintza teknologikoa sortzeko xedez.

5 kideko partzuergoa

Proiektu honek diziplina anitzeko talde bat osatu du, analisi, enpresa, merkatu eta berrikuntza gaitasunak uztartzen dituenak, bost kideren partaidetzaren bidez: Baiona-Euskal Herriko Merkataritza Ganbara (taldeburua), Gipuzkoako Bazkundera, Lehiakortasunerako Euskal Institutua - Orkestra, Nafarroako Garapena - Sodena eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea.

COMPET' plus proiektua, zeina 2020 eta 2022 bitartean garatuko den, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (FEDER) bidez finantzatuta dago % 65ean, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bidez. Hiru lurraldeen arteko mugaz gaindiko garapen jasangarria sustatzeko xedez sortutako europar lurralde-lankidetzeta programa bat da, hain zuzen.

COMPET' Plus proiektuak jarraipena ematen dio COMPETITIV'ekori, Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroa eremuko mugaz gaindiko lankidetzeta-proiektu arrakastatsuari. Proiektu hori positiboki baloratu zuen Deusto Research Social Impact 2020 Zigilua Ebaluatzeko Batzordeak.



Kontaktua: presse@euroregion-naen.eu